

BOOBIZI

Bezeroarekiko harremanak

Bezeroei erosketa errazteko eta harreman hurbilago izateko hainbat gauza egingo ditugu:

Hasteko, gure produktua erosterakoan, laguntza pertsonala eskainiko dugu gure web orrian. Hau da, haiek laguntzeko taula bat taia eta neurri zehatzekin egingo dugu, bularraren eta bizkarraren neurriaren arabera. Bularretako taiak nahiko zailak dira ulertzeko askotan jendea ez dakielako kopa eta zenbakia zer diren, eta beste enpresek normalean ez dute azaltzen. Neurrien taularen gainean iruzkin bat jarriko genuke azaltzen zure kopa zein den nola jakin: *“titipuntaren altuera eta gero, bularraren azpian neurtu behar da; hauen arteko diferentzia zure kopa izango da. Ondoren, zenbakia titipuntaren altueran daukazu neurriaren arabera izango da”*. Ikusten badugu hau nahikoa ez dela, marrazki batzuk dizeinatu ahalko genituzke prozesu hau errazteko.

Horrez gain, iruzkinen atal bat egongo da. Atal honetan bularretakoak erosi dituzten emakumeek haien iritziak produktuari buruz jartzeko aukera izango dute. Horrela, besteak informazio gehio izango dute erosi baino lehen, eta informazio hau laguntza bezala izango da aukeratzeko orduan. Gainera, gure bezeroen iritziak, onak zein txarrak jakitea oso garrantzitsua da gure enpresarentzat. Izan ere, kritiketatik beti ikasi eta hobetu daiteke.

Bestalde, geroago aipatuko dugunez, laguntza pertsonal eskainia edukiko dugu. Badakigu oso estresagarria, deserosoa edo hotza izan daitekela robot batekin komunikatzea eta ondorioz, bezeroak benetako pertsona batekin kezka, zalantza edo gomedioak partekatzea gustatuko litzaiguke. Modu horretan, jasango duten tratua xumeagoa izango da eta argi eta garbi jakingo dute beti kontuan ditugula. Haiekin dugun harremana askoz estuagoa izango da eta hori abantaila izugarria izango da guztientzako; bezeroak gustura sentituko direlako produktuarekin zein emandako zerbitzuarekin eta guk boobizi bularretakoak hobetzeko aukera izango dugulako. Gainera, webguneko txataren eta sare sozialen bitartez gurekin kontaktuan jartzeko ahalmena izango dutenez, bat-bateko laguntza jasoko dute behar duten une zehatzean.

Zerbitzu automatizatuak erabiliko dira salmenta-erosketen prozesuan, hau da, hasiera batean produktu guztiak interneten bidez salduko dira. Honek esan nahi du, bakoitzak bere salmenta prozesua egin dezakela; ez da beharrezkoa denda batera joatea, edoizen lekutan egin daiteke, eta nahi den momentutan. Hala ere, beti gure bezeroekin harremanetan jartzeko aukerak egongo dira, era askotakoak. Komunikazioa hain garrantzitsua denez, sare sozialetan hainbat enkuesta egingo ditugu, gure bezeroen gustuak jakiteko, eta horrela haien behar guztiak asetzeko.